

GERNIKAKO BONBARDAKETARI BURUZKO DOKUMENTAZIO ZENTROA

Foru Plaza, 1
48300 Gernika-Lumo
Tel. 946272113
Fax. 946258608

E-mail: dokumentaziozentrua@gernika-lumo.net

Gernikako Bonbardaketari Buruzko Zentroa Gernika-Lumoko Udalaren ekimenez sortu zen (1997an). Horren asmoa zen Gernikako bonbardaketari buruz (1937/04/26, Gerra Zibil Espainiarra) mundu osoan (liburutegietan, artxibategietan, filmoteketan, eta abar) egon zitekeen material guztia -idatzizkoa, grafikoa eta ikus-entzunezkoa- udalerrri honetan biltzea.

Hainbat urtez ikerketak gauzatu eta material interesgarriak bildu ondoren, Zentroak bere atek zabaldu zizkien -2002. urtean- Gernikako bonbardaketaren egunean, Gerra Zibilean eta erbestean gertatutakoa modu sakonagoan ezagutu nahi duten ikertzaileei eta publiko osoari.

Dokumentazio Zentroa zerbitzu publikoa da, Gernikako Bonbardaketari eta Gerra Zibil Espainiarrari buruz duen dokumentazio fondoa interesatutako pertsona guztien eskura jartzen duena. Fondo horretan liburuak, agiriak, aldizkariak eta ikus-entzunezko materialak daude.

Honako arlo hauek hartzen ditu barne:

- Gernikako bonbardaketa
- Gerra Zibil espainiarra
- Erbestealdia
- Gernika-Lumoko historia

IKERKUNTZA ARETOAREN ERABILERA ARAUAK

ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera: 10:00 - 14:00 (goizez)

Asteartetik ostiralera: 16:00 - 19:00 (arratsaldez)

Udako ordutegia: asteartetik ostiralera: 10:00 – 14:00

SARBIDEA

- Aretora sartu eta beraren zerbitzuak erabili ahal izateko 18 urteko adina izan behar da, gutxienez. Salbuespena: plan didaktiko eta kulturaletan sartutako taldeetako ikasleak; kasu horretan, gutxienez 16 urte izan behar dituzte erabiltzaileek.

- Dokumentazio Zentrorra egiten den lehenengo bisitan erabiltzaile-txartel bat emango da; horretarako hauxe beharko da:

Eskari orria betetzea.

NANaren edo pasaportearen fotokopia aurkeztea.

- Zentrorra egiten den bigarren bisitatik aurrera, ezinbestekoa izango da erabiltzaile-txartela aurkeztea.
- Txartel horrek hiru urteko balio-aldia izango du, ematen den egunetik aurrera.
- Txartela pertsonala da eta ezin zaio inori utzi; arauak bete ezean, zentroak kendu ahal izango dio txartela erabiltzaileari.
- Txartela zentroko arduradunari erakutsi beharko zaio bertara iristean.

IKERKUNTZA ARETORAKO SARBIDEA

- Gernikako Bonbardaketari Buruzko Dokumentazio Zentroaren ikerkuntza aretoak 12 pertsonentzako lekua du. Ikertzaile gehiagok sartu nahi izanez gero, bertara joateko txandak egingo dira, gutxienez lau egun jarraikoak.
- Esparru kolektiboa denez, gogoan izan behar da aretoaren barnean debekatuta dagoela erretzea eta/edo jatea, baita ikerkuntzarekin zerikusirik ez duen beste edozein jarduera egitea ere.
- Gainerako erabiltzaileak errespetatzearren, ISILTASUNA gorde behar da erabat; aretoko arduradunari kontsultaren bat egin nahi izanez gero, besteen ikerkuntza-lana oztopatu gabe egin behar da. Arrozo berberagatik, ez da onartuko ez taldeka lan egitea ez tresna zaratatsurik erabiltzea.

DOKUMENTAZIOA ETA BIBLIOGRAFIA KONTSULTATZEA

- Ikertzaileak Dokumentazio Zentroak dituen inbentarioak eta deskripzio-tresnak erabiliko ditu behar duen informazioa aurkitzeko. Halaber, dokumentuen datu-baseetara heltzeko terminalak izango ditu bere esku. Tresna horiek erabiliz gero, ikertzaileak horren berri emango dio aretoko arduradunari. Beronek esango dio zein leku dagokion.
- Dokumentazioa kontsultatu ahal izateko eskari-fitxa batzuk bete beharko dira. Osorik eta erraz irakurtzeko moduan betetzen ez diren inprimakiak ez dira kontuan hartuko.
- Oraindik sailkatu edo prozesatu gabe dauden fondoak ezin izango dira kontsultatu.

- Kontsulta banan banakoa da. Dokumentuentzat ez dago gehieneko egun mugarik, baina hiru baina ez dira utziko; hala, kontsulta mahaian ezin dira aldi berean hiru pieza baina gehiago eduki.
- Dokumentazioak karpeta, kaxa eta abarretan duen ordena guztiz zaindu behar da, ikertzaileak desordenatuta daudela pentsatu arren.
- Guztiz debekatuta dago dokumentazioan eta dokumentuetan idaztea, nahiz eta horren xedea zerbait zuzentzea edo orrialdeak zenbakitzea izan.
- Dokumentuak eta liburuak entregatzeko zerbitzua zentroa ixteko ordua baino 30 minutu lehenago bukatzen da. Eskatutako dokumentazioa hurrengo egunetan ere kontsultatzen jarraitu nahi baduzu, erreserba egin ahal izango da. Erreserbaren muga haxe izango da: bi egun eta hiru pieza pertsona bakoitzeko.

ERREPROGRAFIA

- Dokumentazio Zentroak ez du erantzukizunik hartzen legeak babestutako autore-eskubideen aurka erreproduzioez egin litekeen erabileraz.
- Eskatutako fotokopiak ez dira egingo baldin eta dokumentuen edo liburuen kontserbazio egoerak eragozten badu, edota beraien formatu, antzintasun edo bestelako arrazoien eraginez dokumentu edo liburuetan kalteak gertatzeko arriskua badago.
- Monografiaren kasuan, obra bakoitzaren 1/3 soilik erreproduzitu ahal izango da.
- Ezin izango da argitaratuta ez dauden deskripzio-tresnak (inbentarioak, gidak,...) erreproduzitu.

- Fotokopiak egiteko, horri dagokion inprimakia bete beharko da eta aretoko arduradunari eman.
Behar den bezala betetzen ez diren inprimakiak ez dira onartuko.
- Ikertzaile bakoitzak gehienez 50 fotokopia egin ditzake egun bakoitzean.
- Dokumentazio Zentroak eskubidea du fotokopiak eskatzen diren unean egiten ote dituen erabakitzeko. Unean bertan ezin egin badaitezke, beste egun batean jaso ditzala eskatuko zaio ikertzaileari (egun hori fitxako *Entregaren data* epigrafean zehaztuko da), edota postaz bidaliko zaizkio.
- Fotokopiak egin baino lehen ordaindu beharko dira. Bidalitako kopiak jasotze unean ordainduko dira, posta zerbitzuan. Beste kontinente batetik datozen eskarien kasuan, gutun bat bidaliko zaio eskatzaileari, fotokopien eta bidalketa gastuen zenbatekoa zehaztuz. Zenbatekoa ordaintzen duenean -eurotan-, fotokopiak bidaliko zaizkio.
- Artxibo eta hemerrotekako materiala osorik erreproduzitu ahal izango da Dokumentazio Zentroak horren baimena izanez gero. Bestela, aretoan soilik kontsultatu ahal izango da eta erreprodukzioen eskaria jatorrizko materiala duen zentroan egin beharko du ikertzaileak (informazio hori gustura emango dio Dokumentazio Zentro honek).
- Dokumentuak non gordetzen diren, kopiak non kontsultatu diren (Dokumentazio Zentroa) edo kopia horiek nongoak ziren -hau da, jatorrizko materialak non dauden- aipatu beharko da derrigorrez.

Adibidez: EL SOL egunkariaren artikulua, 1937.04.26koa.

Fotokopia hauek Gernikako Bonbardaketari buruzko Dokumentazio Zentroan eskuratu dira; jatorrizko testua Madrilgo Udal Hemerrotekan dago.

- Dokumentazio Zentroak emandako kopiak edo bertan eskuratutakoak ezin dira baimenik gabe erreproduzitu.
- Fotokopiak gutunez edo telefonoz eskatzeak ez du eskari orria betetzeko betebeharra kentzen.
- Ikertzaileek euren lanen ale bat eman behar diote Dokumentazio Zentroari beronen fondoak erabili badituzte.

OHARRAK

Edozein arazo eta/edo arau-salbuespen aretoko arduradunari jakinarazi behar zaio. Zuzendaritzak erreklamazio guztiei erantzungo die, behar den bezala justifikatuta aurkeztuz gero.

Arau hauek edo Dokumentazio Zentroko langileen aginduak ez betetzeak zentroko zerbitzuak garai batez edo betirako ezin erabiltzea eragin dezake.

Kalteak eragiten dituenak edo zerbait lapurtzen duenak kasu bakoitzari dagokion erantzukizuna hartuko du.

Zentro honetako oraingo eta etorkizuneko erabiltzaileentzako zerbitzua hobetzeko, araudi hau betetzearen alde aritzea eskatzen zaie guztiei.

Gernika-Lumon, 2002ko otsailaren 20an.
Zuzendaritza